

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

San Francisco 1896, bidegorri eske



1896ko uztailaren 25ean milaka txirrindularik bizikletentzat bide egokiak aldarrikatzeko agerraldia egin zuten San Franciscon. Ezkerreko irudian, XIX. mendeko txirrindulari klub estatubatuar bateko kideak.

SAN FRANCISCO (AEB), 1896KO UZTAILAREN 25A. Milaka txirrindularik bi gurpileko garraiobidearen aldeko martxa egin zuten hiriko kaleetan, Good Roads (Bide Onak) mugimenduak antolatuta. Biharamunean *The San Francisco Call* egunkariak adierazi zuenez, 100.000 bizikletazale inguru bildu ziren, txirrindulariak nahiz oinezkoak kontuan hartuta.

Hamar bat urte lehenago, aurreko gurpil erraldoia zuen bizikleta arriskutsua baztertu eta tamaina bereko bi gurpileko bizikleta modernoa nagusitu zen. 1889an, gurpil pneumatikoak bizikletan ibiltzea are gehiago erraztu zuen. Hala, bizikleten salmenta eta erabilera izugarri hazi zen. Bizikletek AEBetako hainbat hiritako kaleak hartu eta berehala, erabilera muga-tzeko arauak sortu ziren: gehienezko abiadura, ordutegi bereziak... Baina baita muga horiei aurre egiteko mugimenduak ere. 1880an League of American Wheelmen delakoa sortu zen Rhode Islanden, eta txirrindulariak herrialde osoan biltzen eta antolatzen hasi ziren.

Ez da harritzekoa San Francisko mugimenduak Good Roads izena izatea, horixe baitzen hiriko txirrin-

dularien premia nagusia: bizikletentzako bide egokiak. San Franciscoko bide sarea hiriak 40.000 biztanle zituen planifikatu zuten, baina XIX. mendean amaieran 360.000 biztanleko metropolia zen. Ordura arte nagusiki tranbiak eta gurdiak zebiltzan kaleetan eta, horregatik, zorua lokatzez, galtzadarriz eta tranbiaren errailez josita zeuden. *The San Francisco Callek* zioen moduan, bizikleta aurrerabidea zen, eta hiriak bizimodu berrira egokitu behar ziren.

1896ko martxa hark berehalako erantzuna izan zuen: 1898an txirrindulariak Market Street zolatu berrian gora eta behera zebiltzan. 1899an 1.200.000 bizikleta saldu ziren AEBetan.

Hamar urte geroago, 1909an, 160.000 besterik ez ziren saldu. Bi gurpilak lau bihurtu ziren, petrolioak zangoen indarra ordezkatu zuen, eta kaleak auto pribatuen mesedetan zolatzaren hasi ziren.

1997ko uztailaren 26an, 101 urteren ondoren, txirrindulariek berriro hartu zuten Market Street eta, orduez geroztik, hilero egiten dute martxa, egunero egiteko aukera helburu.

Arrastoak

Age of Empires bideojokoa doan ipini dute sarean

AGE OF EMPIRES estrategia historikoari buruzko bideojokoa Interneten musu-truk deskargatzeko moduan ipini berri dute.

Bideojoko horren lehen bertsioa duela hamalau urte merkaturatu zuten, eta ordutik, milaka jokalaria guduetan borrokatu eta egurra nahiz urrea biltzen aritu dira herrixkak, gotorlekuak, hiriak eta inperioak eraikitze, beti ere historiako zibilizazio nagusietan girotuta.

Doako bertsioak lau zibilizazioen aritzeko aukera ematen die jokalariei (greziarra, egiptoarra, pertsiarra eta zelta), bakarka nahiz *online*, beste jokalaria batzuen aurka. Jokoa ageofempiresonline.com helbidean deskargatu daiteke PCrentzat.

